

MARIA DIONISIA LICEAGA Y AGUERRE

Eulali Aranburu Urkizu

SECCION ADMINISTRATIVA
DE
PRIMERA ENSEÑANZA

GUIPUZCOA

El Ilmo. Sr. Rector de la Universidad de Valladolid, en oficio de fecha 16 del actual, me dice lo que sigue:

"Este Rectorado, en uso de sus atribuciones y como Delegado del Ministerio de Instrucción Pública, se ha servido con esta fecha autorizar el funcionamiento del Colegio de 1ª enseñanza, no oficial, de asistencia mixta, que en el barrio de PAGOAGA de la villa de Hernani, de esta provincia, tiene establecido doña Dionisia Liceaga Aguirre; siempre que el número de alumnos que al mencionado colegio concurren no exceda de 35, a los que se concederán las vacaciones caniculares reglamentarias"

Lo que traslado a V. para su conocimiento y efectos.

Dios guarde a V. muchos años.
San Sebastia, 30 Agosto 1924.

El Jefe de la Sección,

- Ilegible -

- ES COPIA -

Sra. Dña Dionisia Liceaga Aguirre, barrio de Pagoaga.

HERNANI

Relación de los alumnos y alumnas matriculados en la Escuela de Pagoaga, al mes de Enero de 1925

Nº de orden	Nombre	Apellidos	Edad	Domicilio
+1	Nicolas	Chotorena	12	Blazar
+2	Jose Maria	Eizemendi	11	Blazar
+3	Miguel	Chotorena	9	Pagoaga
+4	Tomás	Liceaga	5	Pagoaga Aguirre
+5	Ramon	Arceña	12	Ubaldecho
+6	Francisca	Balerdi	11	Blazar
+7	Dolores	Chotorena	9	Trata
+8	Feliciana	Petun	10	Trata de Echob
+9	Dionisia	Marcos	9	Pagoaga Aguirre
+10	Margarita	Jordo	9	Ubaldecho
+11	Isaguna	Arceña	8	Pagoaga Aguirre
+12	Antonia	Balerdi	7	Echob Aguirre
+13	Concepcion	Arceña	11	Trata
+14	Graciama	Ubaldecho	6	Ubaldecho
+15	Vibiana	Petun	6	Echob Aguirre
+16	Dolores	Balerdi	10	Ubaldecho
+17	Pedro	Eizemendi	9	Echob Aguirre
+18	Jaustino	Aranburu	9	Naparralde

Dionisia Liceaga Aguerre, Paguako Maixtra", Hernanin jaio zen, 1894ko Irailaren 9an goizeko 7 t'erditan Igerola baserrian, Pagoagako auzoan. Egun berean On Sebastian Maria Minerrek bataiatua; horrela dio bere baitatz agiriak. Aita, Joxe Manuel hernaniarra, eta ama Maria (Maria Concepción) aranoarra.

Liceaga-Aguerre sendia urte gutxira, Pagua baserrira jeitsi zen. 10 seme-alaba izan zituzten: Joxe Ramon, Dionixi, Joxe Mari, Domingo, Isidro, Patxi, Joxe, Julian, Cristina eta Tomas.

Mende honetako lehen bi hamarkadetan Pagua baserrian famili ugaria izanagatik jende asko biltzen zen baserria zen, neskamea, morroia eta mandazainak izaten zituzten. Hortxe egonak ziren neskame, Maria Peruarena, Pilar Otxotorena... hau eskola piskat zuena zen eta Dionixiri lehen eskola-pausoak ematen erakutsi ziona, beste senideak bezala jaio eta hazitzen zihoazen araberan.

Ikulua edo bakeria zuten seiren bat behiekin horretarako morroia ikuluko lanen ardura zuena; lan honetan arituak Etxolaberri baserriko mutilak. 3 mandazain ere baziren: mandazain bakoitzak 3 mandoren ardura izaten zuen; zaindu, kargatu, lotu, askatu, hustu, menditik zaku-ikatzak eta egurra jeisteko.

Taberna ere izaten zen Paguan; horrela dio Artxiboan dagoen "Gastuen Liburuan", 6 zenbakian:

1914-XII-7.an. "Satisfechas a D. José M. Liceaga como importe de una comida suministrada a la Comisión que concurre a la delimitación de pastos incendiados en los montes de Mizpira-Celay". 24,50 pesetas.

1915-IX-23.an. "Satisfechas a D. José M. Liceaga como importe de la comida suministrada a los comisionados que concurren a la entrega del monte de Mizpira-Celay". 24,50 pesetas.



Lizeaga Agirre anai-arrebak.



Paguako Eskola.

Pagoaga auzoa, guztiz euskalduna zen (gaur egun ere oraindik den bezala), oso paraje ixila, paketsua, bakartia, mendiz inguratua, baso ederrez jantzia, basarri politez apaindua, garai honetan, 3 baserrietatik 2 maisterrak izanik, 3 bizitzako baserriak, 2 bizitzakoak,... eta bizitza bakoitzean famili ugariak, 6, 7, 8, 10, haur.

Auzo honek ez zuen elizarik, ezta Eskolarik ere. Kontuan hartu behar da Pagoaga nahiz Hernanin kokaturik egon, Hernaniko herriaren erditik 10km. tara zegoela eta dago: mila beharretarako, enkarguak zirela, herrikoetxera joan behar zutela, Epaitegira, hilerrira, eliz beharretara, eskola osagarrietara... Gertuago, bost bat km. tara Ereñozu auzoa San Antoniori eskenitako elizakin, meza entzuteko eta Lehenengo Jaunartzea egiteko. 6km. tara Fagollagako eskola, ez ezik, lau joan-etorri egiteko, haur gaixoak ezerrez!. Noiz edo noiz asto karro edo zaldikaroren bat.

Honela haurrek, Eskolan hutsegite ugari egi-ten zuten. Baserrietatik kaminora jeitsiagatik, hemendik Fagollagara, eskolara ere, joan egin behar zan, hankutsik, zenbait bide lokatzetan igaro ondoren, non edo han oinetakoak aldatuz eta jarraitu bideari, alpargatak, abarkak jantzian... ahal zen bezala!. Haur horien gurasoek ere ez zuten eskola

haundirik eta zenbait aita-amak ez zekiten idazten, firmatzen ezta irakurtzen ere.

Pagua baserriko aita Joxe Manuel ez zen libratzen arazo honetatik, Pagoaga auzoan. Mendiko mutila, zanez, "egur eta ikatz negoziantea" bezala ezaguna, lan hori zuen familiarentzat ogibide.

Lehen aipatutako "Gastuen Liburuan" 6 zenbakian, horrela dio:

1914-XII-7.an. "Satisfechas a D. José M. Li-ceaga como importe de las estacas suministradas con destino al cierre del montazgo de Mizpira-Celay". 105 pesetas.

Joxe Manuel, azkarra zen buruz errialetan kontuak ateratzen, iaiua oso, baina kontu horiek fakturretan jartzeko ezjakina.

Bidezko zen bezala, bere baitan, norbaiten beharra ikusten zuen kontuak eramateko eta dirudienez, Dionixiri zaharrenetakoa izanik eskola on bat ematen saiatu omen zen, etxeko pasadizua egingo ziolakoan aitari.

Dionixik, haseran esan bezala, 4,5,6 urterekin etxean emanak zituen eskolako lehen pausoak, baita Kristau Ikasbidea edo Dotriña ere, usa-

rio zen bezala, etxean, familian. Lehen Jaunartzea 7 urtez Ereñozuko elizan egin zuen. Komunio haundia 12 urterekin Hernaniko Joan Bataiatzailearen Elizan.

8, 10, 12, urterekin Fagollagako eskolan ibilia, bere maixtrak izanik andre Ignacia Beldarrain, andre Juana Garin, andre Casilda Liceaga. Hemengoak egin ondoren, aita Donostiara eraman omen zuen. Artzai Onaren enparantzan familiarrak baizituen eta haien etxetik eskola gehixeago ikas zezan, bide batez Paguatik atera ezkerro gazteleraz ere ikastekotan.



1923-24 Ikasturtea.

Dionixi oso gaztea zela hasi zen besteei erakusten. Pagua baserriko sukalde txokoa, Donostiatik etortzen zenean hartzen omen zituen bere anai-ahizpak eta ... gero gainerakoak.

Dionixi ezkontzeko asmotan zela 1913.urtean etxe berria egin zion aita "Pagua-berri" edo "Eskola-etxe". Pagua baserrian parean Mikelete etxearen ondoan Naparriorako bideak bereizten dituela.

Pagua-berri etxeak 3 soilaru zituen eta ditu: sarreran sotua, eskubira gela bat, berak, bere eskola-gela zuena...

1914ko Urtarrilaren 14an ezkondu zen Pedro Arocena San Miguelekin, Goizuetako semea, Hernaniko parrokiaren. 8 seme-alaba izan zituzten: Joakina, Kontxiki, Ramon, Miguel, Joxe Mari, Enrike, Luis eta Joxe Manuel.

Gaur egun bizi dira: Ramon eta Miguel ezkondu, hau Eskola-etxean bizi da gaur. Joxe Mari, Enrike eta Luis Franziskotarrak dira, aurreko biak Arantzazun bizi dira eta 3.ena Luis Madriden.

Dionixi bere senide eta bere seme-alabekin sortu zuen eskola. Horrela jaio zen Paguako eskola partikularra. Berak irakatsi zizkien 4 erreglak, idazten eta irakurtzen, eta baita ere zekien erdera pixka ere.

Kolegio eder edo Unibertsitatetik pasa gabe, zekiena-zekila, hasi etxeko beharrek eta auzo osoko haurrak bilduz 40 urtez erakutsia zen hainbeste hurrei.

Orduntxe sortu zen "PAGUAKO ESKOLA". 1914an.

Jakina! denboraren eraginez ESKOLA hau:

"PARTIKULARRA; MUNIZIPALA; RURALA;UNITARIA; MIXTA eta NAZIONALA" izan zen. Ez dakite ondo asko hainbeste hurrek nolako garrantzizko eskolan ibiliak diren !!-. Eta dena emakume baten borondate sendoagatik.

Paraje hartan ESKOLA PARTIKULARRA sortzeak bakarrik du bere meritua, iraun eta eustea hainbeste urtetan.

Legediari begiratu 1868-Urriaren-21ko Dekretu Legean agertzen da "la libertad de Enseñanza" delakoa eta 1874-Uztailaren-29 Dekretu Legeko 12. artikulua ematen zaio indar gehiago esanez: "Concede a todos español la facultad de



1947-48 Ikasturtea.

fundar y sostener establecimiento de enseñanza con arreglo a las leyes".

Gerora, ERREGE DEKRETUKO 2. artikulok dio: "Se entiende por establecimientos públicos de enseñanza no oficial los sostenidos por personas particulares, Sociedades Corporativas o Asociaciones, aun cuando reciban subvenciones, auxilio o donativo del Estado, la Provincia o el Municipio".

1901-Uztailaren-15an Gobernuak Errege aginduak dioen bezala interesatuak lekuko Agintarien informea behar du eskola edo gela ze egoeratan dagoen adieraziz; garbitasuna, seguritatea, osasuntsua, den eta jabea ez dela Udal Arautegiaren aurka azaltzen.



1950-51 Ikasturtea.

Lege hauen berri ez jakinagatik Joxe Manuel Lizeagak eta bere alaba Dionixi maixtrak, laguntzeko eta erakusteko prest zeuden Jaunak ere izaten ziren. Pagoagako haur arazoa ikusirik herriko alkate eta gainerako Jaunak ere jabetzen ziren egoeraz. Joxe Manuelek, Nikolas Zubillaga omen zuen oso laguna eta modu askotara laguntzen ziona.

Legeak babestuta Dionixi ez zuen izan oztoporik irakaskuntzari heltzeko, nahiz titulurik ez izan. Jaungoikoarengan konfidantza osoa zuena, familia sendo bat, langilea, ixila, eraman haundikoa, zuzena, zorrotza, haurrak eta eskola maite zituena, eta bere buruari asko eskatzen ziona zen Dionixi. Auzoa zen halakoa, batetik bere jaio-leku eta bestetik alkartua.



1955-56 Ikasturtea.

Adibidez, bere seme Ramonek dioen bezala, gogoratzen omen da nola eskolara iristean esanarazten zien, banan-bana sartzen zihoazen bezala: "Buenos días Señora Maestra. ¿Ha descansado usted bien?. Honela eskola hau garai hartan "ELE-BIDUNA" zen. Bi hizkuntzak erabili behar.

Idatzitakoa gehien bat ahoz-ahoz bildua izanik Hernaniko Udalak duen artxibora jo dut ziurtasun gehiagoren bila: paper, fetxa, dokumentu... eta dexente aurkitu dut. Irakurleon ikusmiña sortuko dutelakoan, neronen haridura aurrena izanik, izendatzen hasiko naiz.

Batetik Dionixi nola eraman zuen eskola legez, ofizialtasunez eta munizipal aldetik aipatuko dut eta bestetik Eskolako materiala, haur kopurua, programa, e.a.



1958-59 Ikasturtea.

Nahiz bera hasi eta jarraitu eskolaren ardurara eta antolamenduarekin 1919. urtean onartua izan zen ofizialki Dionixik egiten zuen lana eta Hernaniko Udala hasten da soldata ordaintzen. Pagoaga auzoko Eskolaurreko maixtra bezala subentzio bat ematea erabaki zen; hiru hilabetetik behin 62,50 pzta. urtean 250 pzta.

1920rako, Jose M^a Ubarrechena alkate jaunak adierazten dio subentzioaren igoera urtean 350 pzta. arterainokoa izango duela. (87,50 pzta. hiru hilabetekoa).

1921rako 450 pzta. agindu eta ematen diote. (112,50 pzta. hiru hilabetekoa).

1922, 1923.an. Subentzio berdina izan zuen.

1923- Maiatzaren - 1an. Dionixik eskari hau egiten dio Hernaniko Udalari:

a). Neguan gau-eskolak eman ahal izateko aukera.

b). Soldata 450 pezetatik 1.000 pezetara igotzekoa. Berak eutsiaz, haurrengan, material eskolarrentzako kuota kobratzeko eskubideari. Egunezko klasetan izaten zen: hileko, idazten zekien haur bakoitzak 1,50 pzta. eta pezeta bat ez zekitenak. Gau-eskolan berriz 2,50 pzta. pertsona bakoitzeko eta kurtsoko.

c). Eskubide hori bidezko zuela haurrek ordaintzen zuten kuota nahiz materialarentzat zena-gatik jasotzen baitzuen eskolako lokalaren alokairua.

d). Eskola honetara Aranoko haurrak etortzen zirenez, Dionixik zion 1.000 pezetako subentzio hori, ondo legokela bi Udalek ordaintzea: Hernanikoak % 75 eta Aranokoak %25.

e). Gau-eskolak bost hilabeteko izatekotan, egunean bi ordukoak izatea, Azarotik Martxora.

1923- Urriaren - 20an. Eskutitz bat datorkio Dionixiri, Inspektorearena, esanez: Eskola pribatua edo partikularrean erakusteko dituen dokumentuak presentatzeko.

1923- Urriaren - 22an. Joakin Orayen Otxotorena, alkate jaunak erantzuten dio Inspektoreari.



1960-61 Ikasturtea.

1924- Abuztuaren - 16an. Valladolideko Unibertsitateko Erretore Jaunak biltzen dio Dionixiri eskolak emateko baimena. 35 haur baino gehiago ezin dituela izan esanez. Beste edozein eskola bezala beteaz ordutegiak, jai egunak eta opor hila-beteak.

1924- Azaroaren - 26an. Teodoro Zaragüeta Abalabide, alkate jaunak, Udalak hartu duen erabakia adierazten dio Dionixiri 1925. urtetik, egunez eta gauzez doain izango dutela haurrek eskola.

1925- Urtarrilean Dionixik egunez eta gauzez dabilzkien haurren lehen zerrenda agertzen da; 38 haur dira egunez eskolatuak 5 urtetik 12ra; eta 20 haur gauzez 6 urtetik 25 urte tarteko, hauen artean Dionixiren senideak diren sei haur ageri dira. Gau-eskolan mutilak agertzen dira, Pagua, Igerola, Errekalde, Aparrain, Errota, Olazar, Naparralde, Igerola-berri baserrietakoak, nor inguratu neguko gauetan Paguako eskolara?.

1925- Otsailaren - 10ean. Ikusirik urte haseran haur zerrenda hura, Teodoro Zaragüeta alkate jaunak Dionixiri adierazten dio haurrengandik jasotzen duen (materiala ...) diruarekin bat eginez, urteko kantitate fijoak jartzea erabaki dela: 500 pzta. (450 - 50 gau-eskolagatik).

1925- Irailaren - 2an. Agustina Martikorena Zapiainek ziurtatzen du: Dionixi Lizeaga Aguirre, Paguako maixtra, udako oporretan 30 lezio hartzen saiatu dela Udalarekin erabakita gelditu zen bezala.

**1963-64 Ikasturtea.**

1927- Abuztuaren - 19an. Agustina Martikorena Zapiainek ziurtatzen du: Dionixi Lizeaga Aguirre, Paguako maixtra oporretan 60 lezio hartuak dituela Udalarekin erabakita gelditu zen bezala.

1928- Otsailaren - 28an. Dionixik, Jenaro Bermejo idazkari jaunari idazten dio auzo eskariei erantzuteko jai egunetan neska helduei klaseak emateko baimena eskatuaz.

Hemen ikusten da, neskek ez zutela gau-eskolara joaterik izaten: negua, iluna, gaua, eskola urruti... dena zuten arazo, eta horrela, ikasteko gogoz, igande eta jai egunetan eskolara etortzeko modurik baote zuten eskatzen diote Dionixiri.

1928- Martxoaren - 5ean. Jasotzen du erantzuna Dionixik, eta honela dio: "Eskola partikularra duzunez, ez duzu behar Alkatetzaren baimenik klaseak emateko igande eta jai egunetan, zuk Udal lizentzia bakarrik behar duzu, Udalak ordaintzen duen materiala, ikasleek erabili ahal izan dezaten; eta baimen hori atsegin osoz, ematen dizu Komisioak".

1929- Ekainaren - 22an. Jose Almandoz Aranoko alkate jaunak, Hernaniko alkateari eskutitza egiten dio esanez: "Dionixi Lizeaga, Paguagako

Eskolako maixtrari Aranoko herriak ordaintzen zion subentzioa (%25) ukatzen (kentzen) zaio".

Badu bere arrazoia, Aranok bere eskola publikoa, haur denentzat herrian zuen, baserriak berriz urruti, eta gertuago Paguako eskola. Orduan, eskola sasoiko haurrak zituzten gurasoen gain utzi zuen Aranok arazoa.

1929- Irailaren - 21ean. Gai hau batzordeko bileran hitzegiten da eta Hernaniko Udaleko plenoari proposatzen dio erabaki bat hartzeko "Aranoko haurrei Paguako eskolara etortzea debekatzeko".

1929- Abenduaren - 7an. Hernaniko Udalak Batzordearen proposamena onartzen du.

1930. Urtarrilaren - 25ean. Hernaniko Udalak proposamena plenuan onartzen du hilero 3,50 pzta. kuota ordainaraziz haur bakoitzarengatik eta Hernaniko haurrekin eskubide berdinak izan ditzaite, erreserba batekin: noizbait eskola honetako lekua txikiegia izanez gero Hernani eta Aranoko haurrak sartzeko, hauek ez lutekela joaterik izango eskola honetara. Jenaro Bermejo jaunak izenpetua.

Geroztik Dionixi Lizeaga, Paguako eskolako maixtrak, Ikasturte bakoitzean haur zerrendak bialtzen ditu Hernaniko Udalera "forasteros" nor-

tzu diren izentatuak, bai egunez eta bai gau-eskolan. Agertzen diren zerrenda guztien berri emateak zail egiten denez, 1939-40ko Ikasturtea erantsiko dut:

Egunez 35 neska-mutilak(4 urtetik 12 ra)
 Aranokoak 6 neska-mutilak(6 urtetik 11 ra)
 Gauzez 16 mutil(14 urtetik 17 ra)
 Aranokoak 3 mutil(14 urtetik 16 ra)

1930- Urtarrilaren - 30ean. 7 haurren gurasoek: Juan Jose Izaguirre Aranburu, Ignacio Zabala Zapiain eta Jose Antonio Ibarburu Gurutzeagak eskaria eginez Hernaniko korporaziori idazten diote bere haurrak Paguako eskolara joan ahal izan dezaten baimena eskatuz, haur hauen baserriak Aranoko herri-eskolatik urruti daudelako eta zail egiten zaielako joatea. Gertuago dute Paguako eskola, Dionixi Liceaga Maixtrak daramana eta Hernaniko Udalak subentzionatzen duena. Anastasio Izagirrek izenpetzen du, interesatuek ez dakitelako.

1941-42ko ikasturteko zerrenda ere badago eta hor badira 18 haur "Forasteros": Aranokoak 6 -Errenderikoak 3 - Urnietakoak 8 - Donostiakoa 1.

1942- Abenduaren - 23an. Ricardo Rezola alkate jaunak adierazten dio Dionixi Liceaga Paguako eskolako maixtrari bere subentzioa Jauregiko maixtraren soldatarekin berdindua gelditzen dela, nahiz harek titulorik ez izan eta honek bai; kontuan izanik desberdintasun hori gainditua duela Dionixik maixtra bezala eskola-lanean daraman denborarekin.

1943. Ekainaren - 3an. Donostiako Delegaritzak idazkaritzatik Dionisia Liceagari, Pagoaga Eskola berak zuzentzen duenez, 1945 Azaroaren 15eko B.O.ak agintzen duen bezala beharrezko diren baimen eta dokumentuen berri eman dezala eskatzen zaio. Delegatuak izenpetua.

1945- Urtarrilaren - 12an. Dionixik erantzuten du: Hernaniko Udalerriko Pagoaga auzoan baserri ingurunean, kokaturik dagoen eskola "partikularra eta mixtako" maixtra izanik, nahiz titulurik ez izan, ziurtatzen duela eskola honen funtzionamendua baimendua duela Valladolideko Unibertsitateko Erretore jaunak, 1924- Abuztuaren 16a ezkerotik, eta honela komunikaturik Probintzi honetako administrazioko sekzioetik, Abuztuaren 30ean. Orain berritzea nahi luke baimen hori.

1948- Ekainaren - 9an. Josefina Oloriz, Inspektore buruak lehenbaitlehen eskola horren legeztatzea eskatzen du. Horrela ez bada egiten, ixteko agindua eman beharra izango duela.

Eskola hau mantentzeko legeak hain zorrotz jarri zirenean Hernaniko Udalak hasi zen pausoak ematen. Dionixik 1953ko Abenduan utzi zion eskola emateari.

Herriko Artxiboa ere 1952ko urterarte dago zuzendua, eta "Gastuen Liburuan" data hori arte dago Dionixi ordaindua.

Hemendik aurrera pasa ginenak aipatu bakarrik egingo ditut. Udalak Deituta eta Dionixiri txanda hartuz 1954ko Urtarrilaren 9an hasia Eulali Aranburu Urkizu, 36 hurrekin, ondoren Juani Otxotorena Izaguirre, Nere Mujika Casares, Isabel Liceaga Aranburu, M^a Nieves Martin Arruti, Ana M^a Torres Murillo, Ana Erice Aguirresarobe, M^a Eugenia Carlos Garralda eta 1977-1978. ikastaroa izan zen Pagua eskola "partikularra, munizipala, rurala, unitaria eta mixtaren" azken urtea.

Eskola hau beti izan da herrikoia, hobeto esanda "Auzokoia", bere autonomi propioarekin. Ziur ez dut aurkitu herriko izatetik Estaduarena izatera noiz pasa zen.

Esan bezala 1978an D. José Sanchez Inspektore jaunak eman zuen ixteko ordena, haur gutxi gelditzen baitziren. Kuriositate gisa nahiz ixteko ordena emana egon, 1978-1979rako berriro plaza horretarako M^a Eugenia Carlos izentatua izan zela aipatu behar. "Eskola deuseztatua, baina lanpostua ez".

Alkarrizketa askoren ondoren 1978-1979rako haurrak autobusez Hernanira jeistea erabaki eta gurasoek herrian ziren eskolen artean banatzeko aukera izan zuten: batzuk Urumea Ikastolara, besteak Inmaculada eskolara eta besteak eskola publikora.

Hala beharrez sortu zen "ESKOLA" beharrez itxitakoa da. Mende honetan hasi eta amaitua, "PAGOAGAKO ESKOLA" = "PAGUAKO ESKOLA".

Bihoakio Dionixi zenari, maixtra on eta finari, nere aipamen eta esker ona, 40 urte gaindituz, hainbat lan, apal eta ixil egin zuelako, gurasoen onerako, haurren oinarritzko jakintzarako, eta ondoren joan ginen maixtren eredurako.